

IZEN-SINTAGMA

1 Azpimarratu ondoko esaldiotako izen-sintagmak.

- *Izaroren lagunak* ez dira gaur etorri.
- *Aralarko artzainak* Larraitzera joango dira gaur.
- *Gu* orain ez goaz inora.
- Oso famatuak dira *Mundakako inauteriak*.
- Gauez etorri zitzaizkigun *zuon auzokoak*.
- Bihar kontatuko digute dena *institutuko ordezkari berriek*.
- *Zuek* emango dizkidazue etxeko giltzak orain.
- Heldu zaigu *zuek bidalitako azken gutuna*.
- *Paperezko lanparak* oso arin hondatzen dira.
- *Eleberri zahar horiek* edonon egon ahal dira.

2 Bereizi ondoko izen-sintagmen elementuak.

- Gure lagunen amak.
Izenlag. Izenlag. Izena
- Burdinazko aulki gorri -ak.
Izenlag. Izena izenond. Det.
- Goiko dendako langile -ak.
Izenlag. Izenlag. Izena det.
- Ezpata luze hura.
Izena Izenond. Det.
- Marenen nintendo berri -a.
Izenlag. Izena izenond. Det.

3 Izenak kontuan hartuz, osatu izen-sintagmak.

- *Gure lagun hori*
- *Artilezko poltsa bi*.
- *Etxeko ate zuriak*
- *Zuen liburu zaharrak*.
- *Marrubizko marmelada hori*.
- *Amamaren gona beltza*.
- *Atzoko pastel gozoa*.
- *Errekaren ondoko arbola luzea*.
- *Nire ordenagailu berria*.
- *Bideko argi guztiak*.

UNITATEA: IZEN-ADITZ-SINTAGMA ETA JUNTADURA I**4 Adierazi zein den izen-sintagma hauetako bakoitzaren ardatza.**

- Idiazabalgo *gazta* zaharra.
- Zuen amaren *etxe* berria.
- Gure *lagunek*?
- Zurezko *oinetakoak*.
- Hereneguneko *egunkaria*
- Zuen *katutxo* beltzak
- *Kamioi* beltz luze horiek
- Azoketako zeramikazko *irudi* luzanga horiek.
- Haien *musika* lasai hura

ADITZ-SINTAGMA**5 Bereizi subjektua eta predikatua eta azpimarratu aditza.**

- Gure amamaren laguna hil egin da.
- Zuen etxeko langilea gaur ez da etorri.
- Gure amak guri ez digu esan nora joan.
- Gure urtebetetzean zuen lagunak etorriko dira.
- Argizarizko kandela horiek ez dute horretarako balio.
- Gero emango dizkizute *auzoko horiek* etxeko giltzak.
- Hori egiten ez dizuet *nik* zuei inoiz irakatsi.
- Horrelako kasuetan ez dute horrelako aitzakiek balio izaten.
- Zuen lagunak izugarri aspertu ziren jai horretan.
- Ondo egiten dituzte neska-mutiko horiek beren lanak.

6 Lotu subjektu bakoitza predikatuarekin.

- | | |
|--------------------------|-------------------------------------|
| • Guk | 5... ez dute gaur emango. |
| • Haien lagunek | 6... oso entretenigarria izango da. |
| • Bizkaiko txakolina | 4... oso laburra da. |
| • Gure lagun horren gona | 1... ez dakigu zer esan duzuen. |
| • Zuen saio gustukoena. | 2... badakite zer egin orain. |
| • Datorren asteko filma | 3... oso ona omen da. |

UNITATEA: IZEN-ADITZ-SINTAGMA ETA JUNTADURA I

7 Osatu esaldiak subjektua edo predikatua asmatuz.

- Zetazeoak *ozeano guztietan daude*.
- Zure laguna ez da gaur goizean eskolara etorri.
- Gure ikaskidearen ama ez da etortzen bere bila.
- Zuen liburuko argazkia oso beldurgarria zen.
- Mendigoizale horiek gaur kilometro asko egin dituzte oinez.
- Argizarizko irudi horiek oso garestiak omen dira.
- Bizikleta horiek ez dute balio horrelako lasterketetarako.
- Behi mota horrek ez du edozein belar jaten.
- Institutuko atezainak oso ondo ateratzen ditu fotokopiak.
- Plastikako irakasleak oso ondo marrazten zuen.

8 Esan perpaus bakoitzean azpimarratutakoaren funtzioa zein den:

subjektua, aditza, objektu zuzena, zeharkako objektua edo adberbioa.

- Gaur goizean oso ondo gosaldut *adberbioa*
- Zure etxean ez dago inor orain. *subjektua*
- Etzi liburuak ekarri beharko dizkizuet zuei. *zeharkako objektua*
- Ni haiekin oso ondo moldatzen naiz normalean. *aditza*
- Euskararen sorrerari buruzko teoria asko daude. *subjektua*
- Izarok gaur gezur galanta esan dit. *objektu zuzena*
- Gero ez dugu prestatuko askaririk. *objektu zuzena*
- Haiek ez digute ezer esan horretaz. *aditza*
- Nik Ikerrri den-dena kontatu behar izan nion. *zeharkako objektua*
- Guk ez genuen atzo arrainik ikusi erreka horretan. *adberbioa*

9 Osatu taula eskatzen diren datuekin.

Perpaua	Subjektua	Aditza	Objektu zuzena	Zeharkako objektua
Nik ez nizuen ezer esan	<i>nik</i>	<i>ez nizuen esan</i>	<i>ezer</i>	<i>zuei</i>
Guk liburu asko erosi genituen	<i>Guk</i>	<i>erosi genituen</i>	<i>liburu asko</i>	
Hark ez daki zergatik	<i>Hark</i>	<i>ez daki</i>	<i>zergatik</i>	
Haiek niri eman zidaten arrazoiren bat	<i>Haiek</i>	<i>eman zidaten</i>	<i>arrazoiren bat</i>	<i>niri</i>
Zuk harrapatu nauzu	<i>zuk</i>	<i>harrapatu nauzu</i>	<i>ni</i>	
Haiek ez zituzten eraman lagunak	<i>haiek</i>	<i>ez zituzten eraman</i>	<i>lagunak</i>	
Zuk niri egia osoa esan zenidan	<i>zuk</i>	<i>esan zenidan</i>	<i>egia osoa</i>	<i>niri</i>
Dena bota zuten	<i>haiek</i>	<i>bota zuten</i>	<i>dena</i>	
Hori berak esan zigun guri	<i>berak</i>	<i>esan zigun</i>	<i>hori</i>	<i>guri</i>
Anek badaki hau	<i>Anek</i>	<i>badaki</i>	<i>hau</i>	

JUNTADURA I

10 Berridatzi perpausok parentesi artekoa erabiliz. (Errepikapen bidezko alborakuntza)

- Bai amarekin, bai aitarekin ederto moldatzen zen. (nahiz..., nahiz)
Nahiz amarekin, nahiz aitarekin ederto moldatzen zen.
- Bai udan, bai neguan beti hotz izaten dira. (hala..., nola...)
Hala udan, nola neguan beti hotz izaten dira.
- Nork euskaraz, nork frantsesez ondo ulertu genuen. (batzuek..., besteek...)
Batzuek euskaraz, besteek frantsesez ondo ulertu genuen.
- Zein dendan, zein kalean oso merke zegoen. (bai..., bai...)
Bai dendan, bai kalean oso merke zegoen.
- Nahiz goizean, nahiz gauean beti aurkitzen dut lotan. (bai..., bai...)
Bai goizean, bai gauean beti aurkitzen dut lotan.

11 Bereizi alborakuntza hutsezko perpausak eta errepikapenezkoak.

- Bat-batean ilundu du; ekaitza dakar. *alborakuntza hutsezkoa*
- Hala orain, nola gero oso gustura egingo dugu. *errepikapenezkoa*
- Bai hemen, bai han oso ondo ikusten dira denak. *errepikapenezkoa*
- Egon zaitezte geldi; laster joango gara denok. *alborakuntza hutsezkoa*
- Zein bata, zein bestea oso politak iruditu zaizkit. *errepikapenezkoa*

12 Bereizi alborakuntza hutsezko perpausak eta errepikapenezkoak.

- Ez esan ezer; 3...bertakoa ematen du.
- Etorri gurekin; 5...joan egingo zen.
- Oso ondo hitz egiten du; 1...sekretua da.
- Ezin dut hori jan; 2... ondo pasatuko dugu.
- Ez dago hemen; 4...alergia diot horri.

UNITATEA: IZEN-ADITZ-SINTAGMA ETA JUNTADURA I

13 Bereizi alborakuntza hutsezko perpausak eta errepikapenezkoak.

- Bai..., bai
Bai Kepa, bai Edu oso dibertigarriak dira.
- Zein..., zein...
(Zein) zurea, zein nirea oso garesti atera ziren.
- Edo..., edo
Edo hori, edo hau, aukera bat egin beharko duzue.
- Alde batetik... Bestetik...
Alde batetik ondo deritzot, bestetik ez.
- Hala..., nola...
Hala horiek, nola hauek, denak dira oso korapilatsuak.
- Nor..., nor...
Nor hemengoak direlako, nor hangoak direlako, beti arazoak.
- Dela..., dela...
Dela neguan, dela udan beti egiten digu bisitatxoak.
- Nolako..., halako...
Nolako galderak, halako erantzunak jasoko dituzu.
- Nahiz..., nahiz...
Nahiz bata, nahiz bestea, guztiz desatseginak dira.
- Bai..., bai...
Bai zure ama, bai nirea, eskola berera joan ziren.

IZEN-SINTAGMA ETA ADITZ-SINTAGMA

14 Jarri ondoko esaldiotako elementuen izenak (izena, izenondoa, izenlaguna, determinatzailea, aditza, subjektu zuzena.....).

• Guk <i>Subjektua</i>	gaur goizean <i>adberbioa</i>	ez ditugu <i>aditza</i>	ohe <i>izena</i>	-ak <i>det.</i>	egin. <i>Aditza</i>
• Arratsaldean <i>Adberbioa</i>	zure <i>izenlaguna</i>	lagun <i>izena</i>	berri <i>izenond.</i>	-ak <i>det</i>	etorri dira. <i>aditza</i>
• Zinemarako <i>Izenlag</i>	sarrera <i>izena</i>	horiek <i>det.</i>	garesti <i>Atrib.</i>	-ak <i>Det.</i>	ziren. <i>Aditza</i>
• Fitoren <i>Izenlag</i>	kanta <i>izena</i>	berri <i>izenond.</i>	guztiak <i>Det</i>	dakizkigu. <i>aditza</i>	
• Institutuko <i>Izenlag.</i>	atezain <i>izena</i>	-ak <i>det</i>	atera dizkit <i>aditza</i>	fotokopia <i>izena</i>	- (a)k. <i>det.</i>

1 Zuzendu gaizki erabilitako izenak.

- Azpeitin eta Azkoitin izan ziren txapelketak. *Azpeitian eta Azkoitian.*
- Nafarrotik ez zuten zainzuririk ekarri. *Nafarroatik*
- Euskal Herriako hainbat leku oso ondo ezagutzen ditu. *Euskal Herriko*
- Zuberotik etorri zenean den-dena kontatu zigun. *Zuberoatik*
- Errigoitiakoa denez, oso ondo ezagutzen du leku hori. *Errigoitikoa*
- Mutilokoa zela uste genuen. *Mutiloakoa*
- Etorri ziren guztiak armintzekoak ziren. *Armintzakoak*
- Larrabetzuara joaten dira astero. *Larrabetzura*
- Donostira joan behar izan zuen ikastera. *Donostiara*
- Bizkaia eta Gipuzkoko herrietara joan ziren. *Gipuzkoako*

2 Erabili leku-izenak «etxe» hitzaren ordeaz.

- Etxera joan zirenean ez zekiten ezer.
(Bizkaia) *Bizkaira*
- Zuek etxetik oso berandu atera zineten.
(Azkoitia) *Azkoitiatik*
- Etxeko lorategian ez dago lore askorik.
(Altsasu) *Altsasuko*
- Etxerantz hurbildu ginen berandu zelako.
(Forua) *Forurantz*
- Etxean aurkitu genituen aldizkari horiek.
(Armintza) *Armintzan*

3 Aukeratu erantzun zuzena.

- *Mutiloan/Mutilon* bizi ziren haiek.
- *Bizkaiko/Bizkaia*ko herrietan ez dago txakoli askorik.
- Horiek oso gustura joan ziren *Errigoitiara/Errigoitira*.
- *Mallabiako/Mallabiko* lagun horiek *Nafarroan/Nafarron* bizi dira orain.
- *Azpeitiako/Azpeitiko* jaietara urtero joaten gara.
- *Altsasuatik/Altsasutik* pasatu zirenean denak txaloka hasi ziren.
- *Urretxuakoekin/Urretxuakoekin* hitz egin omen zuen horretaz.
- *Errigoitirako/Errigoitirako* bidean makina bat pinu bota dituzte.
- *Zaldibiakoak/Zaldibiakoak* omen dira artzain horiek.
- *Mungitik/Mungiatik* hona etortzeko zenbat denbora behar duzue.
- *Ordiziko/Ordiziako* azoka nagusian egoten gara Aste Santuan
- *Hondarribiako/Hondarribiko* aireportuan ez gara inoiz egon.

UNITATEA. LEXIKOA: AZERI GORRIAREN HILKETA

1 Sortu ahal dituzun beste hitz «ibili» hitza abiapuntutzat harturik, elkarketa nahiz eratorpena baliatuz, eta egin esaldi bana hitzokin.

- Ibilera *Oso ibilera berezia zuen, mozkortuta zegoela zirudien.*
- Ibilbide *Ibilbidea zehaztu beharko genuke joan aurretik.*
- Ibiltaria *Asier ibiltari amorratua da, beti prest bidaiatzeko.*
- Ibilaldia *Mendira ere ibilaldiren bat egin ahal dugu.*

2 Lotu ezkerreko zutabeko hitzak eskuineko bere sinonimoekin.

- Bidaiaria 3...aberatsa
- Jaiki 5...azaldu
- Diruduna 4...peluka
- lleordea 2...altxatu
- Agertu 1...bidaztia

3 Eman hitz hauen antonimoak.

- Konpondu *hautsi, apurtu, ...*
- Jantzi *erantzi, ...*
- Arina *motela ...*
- Urrundu *hurbildu, hurreratu, ...*
- Alferra *langilea, ...*

4 Aukeratu hitzik egokiena, esaldietan zarata hitzaren ordez jartzeko.

harrabotsa iskanbila burrunba danbada berbotsa

- Eskaileretan zarata entzun eta nortzuk ziren ikustera atera ginen.
Eskaileretan berbotsa entzun eta nortzuk ziren ikustera.
- Jendearen zaratarekin ez zen ezer entzuten.
Jendearen iskanbilarekin ez zen ezer entzuten.
- Bonba horren zarata ikaragarria izan zen.
Bonba horren danbada ikaragarria izan zen.
- Erleen zarata sumatzen nuen belarrietan.
Erleen burrunba sumatzen nuen belarrietan.
- Zaratak entzuten direnean animalia guztiek alde egiten dute.
Harrabotsak entzuten direnean animalia guztiek alde egiten dute.

5 Bete hutsuneak ondoko zerrendako hitzak erabiliz.

balentria liskarbide bidegile bihoztun ibiltari

- Horiek edozer izaten dute *liskarbide*.
- *Ibiltari* gauean, logura goizean.
- Horrelakoetan oso *bihoztun* jokutzen du.
- Kontu horretan *bidegileak* izan ziren euskaldunak.
- Oso gustuko zuen bere *balentriak* kontatzea.

IZEN MOTAK

1 Sailkatu taulako izenak eta ondoren adierazi bakoitza zein neurriekin erabiliko zenukeen.

	Zenbakarriak	zenbakaitzak	
		neurgarriak	neurgaitzak
Olio			<i>Olio</i>
Ardi	<i>Ardi</i>		
Neke			<i>Neke</i>
Auto	<i>Auto</i>		
Gatz			<i>Gatz</i>

Adib. Bi litro esne

- *Litro bat olio*
- *Ardi batzuk*
- *Neke itzela*
- *Hiru auto*
- *100 gramo gatz*

2 Egin esaldiak ondoko hitzekin eta erabili «batzuk» zenbatzailea izen zenbakarriekin eta «-a» edo «-ak» artikulua zenbakaitzekin.

txokolate ardo ozpin platano eleberri perrexil

- *Txokolate beroa komenigarria da umore ona izateko.*
- *Ardoa ez omen zitzaion batere gustatzen.*
- *Ozpina botako ziola esan zigun.*
- *Hara bazoaz, platano batzuk erosi.*
- *Eleberri batzuk eraman zituen Aralarra ez aspertzeko.*
- *Perrexila erosi behar zuela esan zigun.*

3 Izen bizidunak eta bizigabeak. Aukeratu erantzun zuzena.

- *Astotik/Astoarengandik* erori zen.
- *Zutik/Zuregandik* jaso nuen eskutitz hori.
- Bere *amarengan/aman* ez du batere konfiantzarik.
- Institutuko irakasleetatik/*irakasleengandik* urruti ibili ohi dira.
- Umetik/*Umearengandik* hurbilago jarri behar dira baliabideak.

4 Bete taula, hitzak deklinatuz.

	singularra	plurala	mugagabea
Ama (non/norengan)	<i>amarengan</i>	<i>amengan</i>	<i>amarengan</i>
Institutu (nora/norengana)	<i>institutura</i>	<i>instituetara</i>	<i>institutara</i>
Behor (nondik/norengandik)	<i>behorrengandik</i>	<i>behorrengandik</i>	<i>behorrengandik</i>
Komun (nora/norengana)	<i>komunera</i>	<i>komunetara</i>	<i>komunetara</i>
Egile (norantz/norenganantz)	<i>egilearenganantz</i>	<i>egileenganantz</i>	<i>egilerenganantz</i>

ADIZLAGUNAK

5 Sortu perpausak adizlagunekin adierazten zaizkizun deklinabide-kasuak eta hitzak erabiliz.

- (kale, non, sing.) *Kalean aurkitu ditugu lagunak gaur.*
- (haran, noraino, plur.) *Haiek ez ziren haranetaraino heldu.*
- (ama, norekin, mugb.) *Zein amarekin joan gintezke bertoraino?*
- (literatura, zertaz, sing.) *Egun osoa literaturaz hitz egiten eman genuen.*
- (ume, norentzat, plur.) *Umeentzat baino ez genuen ekarri.*
- (hondartza, norantz, mugb.) *Edozein hondartzatarantz abiatuko gara.*
- (amama, norengandik, sing.) *Amamarengandik urrundu zen konturatu barik.*
- (institutu, non, plur.) *Institutuetan irakasle asko daude.*
- (ikasle, norengan, plur.) *Konfiantza handia zuen ikasleengan.*
- (arkatz, zerez, mugb.) *Oso gustuko zuen arkatzez margotzea.*

6 Zuzendu esaldiotako akatsak eta berridatzi:

- Zuen etxea gure azpian dago.
Zuen etxea gurearen azpian dago.
- Zure auzokoa arabera ez da gertatu inoiz.
Zure auzokoaren arabera...
- Gu bila etorri ziren atzo.
Gure bila...
- Zuen irakasleen gain inor ez zen ageri.
Zuen irakasleez gain...
- Institututik kanpo egon ginen guztiok.
Institututik kanpo ... (zuzena da)
- Eskaileretatik gora orkatila bihurritu nuen.
Eskaileretan gora...

7 Egin aurreko esaldion analisia.

- Zuen etxea gure-aren azpian dago.
Izenlag. Izena Adlag. aditza (IS: Zuen etxea; AS: gure-aren azpian dago)
- Zure auzokoaren arabera ez da inoiz gertatu.
Adlag. Aditza adb. Aditza
- Gure bila etorri ziren atzo.
Adlg. Aditza adb.
- Zuen irakasleez gain inor ez zen ageri.
Adlag. IS aditza
- Institututik kanpo egon ginen guztiok.
Adlg. Aditza IS
- Eskaileretatik gora orkatila bihurritu nuen.
Adlg. Izena aditza

8 Bereizi kasu-marken bidez sortutako adizlagunak (k) eta postposizioen bidezkoak (p).

- Lapur guztiak *leihotik* sartu zitzaizkigun. *K*
- Ez genekien *argirik* gabe geratuko ginenik. *P*
- Zuentzat ekarri genituen ipuinak. *K*
- Zure *aurka* jarri ziren institutuko guztiak. *P*

JUNTADURA II JUNTAGAILU BIDEZKOA

9 Zuzendu perpausotako komuntadura akatsak.

- Guk liburuak eta arkatza erosi dugu. *ditugu*
- Liburuak hartzea eta txartela ateratzea ahaztu zaizkit. *zait*
- Gure motxila eta telefonoa berak ekarri du. *ditu*
- Izaro eta Marenena ekarri nuen. *nituen*
- Hori jostea eta pegatinak erostea ahaztu zaizkio. *zaio*

10 Ezabatu ezaba daitekeena eta idatzi perpaus laburragoak.

- Gure etxean eta zuen etxean berdin egiten dute pastela.
Gure eta zuen etxean berdin egiten dute pastela.
- Aitona zenari soinua jotzea eta panderoa jotzea gustatzen zitzaion.
Aitona zenari soinua eta panderoa jotzea gustatzen zitzaion.
- Idoiari deitu nion eta den-dena kontatu nion.
Idoiari deitu eta den-dena kontatu nion.
- Bilboko pilotariak eta Gernikako pilotariak oso trebeak dira.
Bilboko eta Gernikako pilotariak oso trebeak dira.
- Egunkaria berak erosi du eta bere lagunak irakurri du.
Egunkaria berak erosi eta bere lagunak irakurri du.
- Neuk erosiko ditut olibak eta zeuk erosiko dituzu kakahueteak.
Olibak neuk eta kakahueteak zeuk erosiko dituzu.
- Egun hartan zinemara joan ginen eta hurrengoan hondartzara joan ginen.
Egun hartan zinemara eta hurrengoan hondartzara joan ginen.
- Txorierrri ikasleak eta Solokoetxeko ikasleak taberna berera joaten dira.
Txorierrri eta Solokoetxeko ikasleak taberna berera joaten dira.

11 Berridatzi esaldiok aurkaritzako juntagailu egokiak aukeratuz.

baina baizik eta baizik ezpada baino

- Ez dira auzokoak etorri. Familiakoak etorri dira.
Ez dira auzokoak etorri, ezpada familiakoak.
- Gure aita ez zen agertu. Ama agertu zen
Ez zen gure aita agertu, ama baino/baizik.
- Hori ez da zuon irakaslea. Zuon aita da.
Hori ez da zuon irakaslea, zuon aita baino/baizik.
- Ez zuen dirurik ekarri. Askaria ekarri zuen.
Ez zuen dirurik ekarri, baina askaria ekarri zuen.
- Ez zuten gezurra esan. Egia erdia esan zuen.
Ez zuten gezurra esan, baizik eta egia erdia.

12 Irakurri esaldiak eta esan zein motatakoak diren.

- Institutura joan eta lagun guztiekin hitz egingo dut horretaz.
Emendiozkoa esaldiak
- Zuek zein gu, denok gara berdin-berdinak.
Esaldi hautakaria
- Ez gara errusiarrek, kroaziarrak baino.
Aurkaritzakoa
- Sei edo zazpi joaten dira normalean.
Hautakaria
- Ez dira oraingoak, ezpada antzinakoak.
Aurkaritzakoa
- Zer nahi duzue, marianitoa ala garagardoa?
Hautakaria
- Borrokan edota jolasten aurkituko dituzue horiek.
Hautakaria

13 Sailkatu ondoko juntagailuak.

baina edota baino eta ezpada nahiz zein baizik edo zein

EMENDIOZKOAK

eta

AURKARITZAKOAK

*baina**baino**baizik**ezpada*

HAUTAKARIAK

*ala**edo**edota**nahiz**zein*

1 Bete hutsuneak DENA edo GUZTIA erabiliz.

- Lagun *guztiak* etorri zitzaizkidan etxera.
- Zuk ez zenidan *dena/guztia* kontatu.
- Zuek ondo dakizkizue *denon/guztion* izenak.
- Aurkitutako ur *guztia* edango luke horrek.
- *Denok/Guztiok* ezin dugu berdin jokatu.
- *Denek/Guztiekin* eman zuten erantzun bera.
- *Dena/Guztia* jaten baduzue, sabeleko mina izango duzue.
- Irakasle *guztiak* hurbildu ziren institutuko jaira.
- Gurean *denak/guztiak* gara Errealekoak.
- Zuen lagun *guztiei* gustatzen zaie bertsolaritza.

2 Aukeratu erantzun zuzenak.

- Ume horrek antz *asko/handia* du bere aitonarekin.
- Egur *asko/handia* ekarri zuten etxerako.
- Bero *asko/handia* egiten izan duenez, beti joan gara oinutsik.
- Min *handia/asko* eman zigun entzundakoak.
- Horiek bazkalordurako gose *asko/handia* izaten dute.
- Belar *asko/handia* moztu zuten segalari horiek aurrekoan.
- Indar *handia/asko* izaten dute harri-jasotzaileek normalean.
- Buruko min *handia/asko* izan nuen atzo.
- Gatz *asko/handia* botatzeko ohitura du Anerrek.
- Mesede *asko/handia* egingo zenidake dena kontatuz gero.

3 Bete hutsuneak amaieran dituzunak aukeratu.

- Zuen lagun *guztiak* etorri zaizkit agurtzera. *denak/guztiak*
- Egun *guztia* eman genuen horretaz hitz egiten. *dena/guztia*
- Horko *denak/guztiak* bigarren eskuko liburuak dira.
- *Denok/Guztiok* jakiten dugu horrelakoetan nora jo. *denok/guztiok*
- Soriako etxean neguan hotz *handia* dugu. *asko/handia*
- Irin *asko* erabili duzue saltsa hori egiteko. *asko/handia*
- Ezin genuen ezer ikusi ke *asko* zegoelako. *asko/handia*
- Normalean buruko min *asko* izaten ditu Ziortzak. *asko/handia*
- Kontu *handiz* ibili ziren kasu hartan. *askoz/handiz*
- Zuk oso irudimen *handia* duzu marrazteko. *asko/handia*
- Zuek azal *handia* duzue gero! *asko/handia*
- Esperientzia *handia* dugu horrelako lanetan. *asko/handia*
- Horrelako esperientzia *asko* izan zituen gaztetan. *asko/handia*

1 Osatu zati hauek zatiak lotuz eta jarri zenbaki bakoitza bere esanahiaren alboan.

- | | |
|---------------------|-----------------------|
| 1. Sardina bat lan, | 4...lan alferra |
| 2. Geroa, | 5...eta kanpoan lan |
| 3. Hamalau ofizio, | 6...beti lantsu. |
| 4. Lan lasterra | 7...beharra eragin. |
| 5. Etxean jan | 3...hamabost miseria. |
| 6. Nagia | 1...sardina bat jan. |
| 7. Beharrak | 2...alferraren leloa. |

2 Bete esaldietako hutsuneak laukiko hitzak erabiliz.

lanpetuta lanabes lantegi lanuztea lanvlantsu lanaldi

- *Lantegi* horrelakoek greba luzea egin zuten.
- Enplegu bulegora jotzen dute *langabeek* egunero.
- *Lanpetuta* daudela eta, ezin dute jendea atenditu.
- *Lanabes* egokia erabiltzen jakin behar da.
- *Lanuztea* ordaindu behar izan genuen.
- Horrek *lanaldi* murriztua duela uste dut.
- Beti *lantsu*, horri ezin zaio ezer ere eskatu.

3 Lotu sinonimoak.

- | | |
|-----------------|---|
| • Lantegia | <i>lantokia, lanlekua</i> |
| • Lantsua | <i>lanpetua</i> |
| • Lanaldia | <i>lansaioa, beharraldia, ekitaldia, laneguna</i> |
| • Lanabes | <i>tresna, erraminta, tresneria, langai</i> |
| • Lanaria | <i>langilea</i> |
| • Lanbidea | <i>ogibidea, bizibidea, ofizioa, lanpostua, enplegua</i> |
| • Langabea | <i>lanbakoa, langabetua, langabekoa</i> |
| • Langune | <i>lanleku, lanpostu</i> |
| • Lankidea | <i>kolaboratzailea, laguntzailea</i> |
| • Lankidetzatza | <i>elkarlana, lankidegoa, kooperazioa, kolaborazioa, laguntza, lankidetasuna.</i> |

4 Egin esaldi bana ondoko esapideekin.

- Jo eta ke jardun
Lanean jo eta ke jardun zuen egun hartan.
- Lanak eman
Horri lanak ematen dizkio inor konbentzitzeak, gero!
- Ehoziri lana egin
Horrelakoetan ehoziri lana egitea egokitzen zaigu.
- Lan polita egin
Lan polita egin zuen antzerki lan hartan.

5 Egin esaldi bana hitz hauekin.

- Deialdia
Deialdi horretan azterketak gainditu egin zituen.
- Meritua
Edozein oposiziotan merituen berri eman behar da.
- Hizkuntza eskakizuna
Oposizio horretan bigarren hizkuntza-eskakizuna eskatzen zuten.
- Soldata gordina
Soldata gordina ez da zure kartilan sartzen dizutena.

IZENORDAINAK I**1 Berridatzi esaldiok nabarmenduriko hitzen ordez *pertsona-izenordainak* idatziz.**

- *Zuen lagunei oso gustatu zitzaien etxea.*
Haiei oso gustatu zitzaien etxea.
- *Koadrilakoek ez dakite zer egin kasu horretan.*
Haiek ez dakite zer egin kasu horretan.
- *Ikerrentzat ez genuen ezer berezirik ekarri.*
Berarentzat ez genuen ezer berezirik ekarri.
- *Institutukooi oso ondo iruditzen zaigu hori.*
Guri oso ondo iruditzen zaigu hori.
- *Irakasleengana jo zuen informazio eske.*
Haiengana jo zuen informazio eske.

2 Berridatzi esaldiak ahal denean *izenordain indartuak* erabiliz.

- Ez esan ezer, *zeuk/zuk* esan zenuen egiteko eta.
Ez esan ezer, zeuk esan zenuen egiteko eta.
- Nork ekarri zituen zorriak? *Nik/Neuk* ez.
Nork ekarri zituen zorriak? Nik ez
- *Zuri/Zeuri* irudituko zitzaizun egokia, *niri/neuri* batere ez.
Zeuri irudituko zitzaizun egokia, niri batere ez.
- *Guk/Geuk* ez genuen ezer ekarri jai horretan.
Guk ez genuen ezer ekarri jai horretan.
- Zertarako ekarri zenuten *zuek/zeuek* kartoitzar hura?
Zertarako ekarri zenuten zuek kartoitzar hura?
- *Hari/Berari* ez zitzaion batere gustatu gertatutakoa.
Hari ez zitzaion batere gustatu gertatutakoa.
- *Hi/Heu* ondo hago hor gora begira, gero!
Hi ondo hago hor gora begira, gero!

3 Jarri izenordain bakoitzari dagokion deklinabide-marka.

- (zu) *Zuri* ez zitzaizkizun batere gustatu hango kontuak.
- (ni) *Nik* ez nekien nori kontatu ikusitako guztia.
- (haiek) *Haientzat* horrelako detaileak oso garrantzitsuak dira.
- (hori) *Horrekin* edonora joango nintzateke.
- (hi) *Hiri* eman nian aurrekoan geratzen zitzaidan azken zigarroa.
- (gu) *Gutaz* gogoratu ziren han zeudenean.
- (hori) *Horretaz* oso gutxi zenekiten garai hartan.
- (zuek) *Zuengan* konfiantza handia zuen hark.
- (zu) *Zure* ondoan jartzea gustuko du.
- (gu) *Guregandik* jaso zuten zekiten guztia.

4 Egin erantzunen araberako galderak.

- Ikerri galdetu zion guzti-guztia.
NORI galdetu zion guzti-guztia?
- Geuk prestatu genuen afaria orduan.
NORK prestatu zuen afaria orduan?
- Horko horiek geureak dira.
NORENAK dira horko horiek?
- Haiek Barakaldokoak ziren.
NONGOAK ziren haiek?
- Irakasleak gaur sasi-eskola egin du.
ZER egin du gaur irakasleak?

ADBERBIOAK: ADITZONDOAK**5 Azpimarratu perpaus hauetan agertzen diren aditzondoak.**

- Ikasleak *gaizki* erantzun zigun.
- Beti ibiltzen ziren *ezkutuka* inork ez ikusteko.
- *Gainera oso txarto* ulertzen zitzaion.
- Amarekin egoten zen *batik bat*.
- *Inoiz* ez ginen *oinez* joaten.
- *Gazterik* hil omen zitzaizkion gurasoak.
- *Zintzo ibiliko* zela esaten zigun *egunero*.
- *Berehala* gogorarazi nizkion esandakoak.
- *Argi zegoen* gertatu zenaren zergatia.
- Zortzi lagun *gutxi gorabehera* bildu ginen han.

6 Sailkatu aurreko ariketetako aditzondoak formari begira.

BAKUNAK	ERATORRIAK	ELKARTUAK	BESTELAKOAK	ESAERAK
<i>Beti gaizki</i>	<i>berehala</i>	<i>gainera</i>	<i>batik bat</i>	
<i>Inoiz ezkutuka</i>		<i>oso</i>	<i>zintzo ibili</i>	
	<i>txarto</i>		<i>oinez</i>	<i>argi egon</i>
	<i>gazterik</i>		<i>han</i>	<i>gutxi gorabehera</i>
	<i>egunero</i>			

7 Mailakatu perpaus hauetako aditzondoak, hainbat maila-adberbio erabiliz.

- Goiz heldu ginen hondartzara.
Oso goiz heldu ginen hondartzara.
- Amaia eta Izaro berritsuak dira.
Amaia eta Izaro nahiko berritsuak dira.
- Aimarren katua potolo zegoen.
Aimarren katua erabat potolo zegoen.
- Maren batez ere udan hazi zen.
Maren batez ere udan asko hazi zen.
- Lotsatuta geunden bere aurrean.
Gutziz lotsatuta geunden bere aurrean.
- Ez zitzaigun bere jarrera gustatu.
Ez zitzaigun bere jarrera batere gustatu.

8 Aukeratu hiru aditzondoetako bat.

- *Antza denez* ez daki non dauden, ez baitu ezer esaten. (antza denez/agian/oinez)
- *Oker* zaudete, hori ez da horrela egiten. (triste/oker/ezkutuka)
- *Kili-kolo* zebilen, azkenean laguntza beharko zuen. (ondo/kili-kolo/hobeto)
- *Aurreraka* zihoanez, ondo ikusten zuen. (atzeraka/honaino /aurreraka)
- Ez du ezer entzuten; *alferrik* hitz egiten diozu. (alferrik/zoritxarrez/geldirik)
- Hori *edonoiz* ezin dezakezue esan. (edonoiz/gertu/iaz)
- *Oso* barandu heldu ginen institutura astelehenean. (erraz/osoa/hemendik)

9 Erlazionatu aditzondoak dagozkien ezaugarriekin.

- | | | |
|----------------|---|---|
| 1. Ederki | 6 | Elkartua, leku-aditzondoak, galdetzaileetatik eratorritakoa |
| 2. Barreka | 5 | Elkartua, denbora-aditzondoak |
| 3. Batez beste | 2 | Erorria, modu-aditzondoak. |
| 4. Batere | 3 | Maila-aditzondoak |
| 5. Etsiz damu | 1 | Erorria, modu-aditzondoak |
| 6. Edonon | 4 | Esaera adberbialeak |

PERPAUS OSAGARRIAK

10 Bete hutsuneak.

- Irratiak esan du gaur greba egongo *dela*, baina ez dut uste askok egingo *du (t)enik*.
- Ez diot esan zein ordutan etorri behar *duen*. (hark)
- Ez dut espero horrelakorik gertatuko *zaienik*. (haiei)
- Ordurako (etorri) *etortzea* komenigarria izaten da.
- Badakit oso gaizki pasatu *zutela/zutena* (haiek) hori gertatu zitzaienean.
- Ahalik eta arinen (egin) *egiteko* esan genien lagunei.
- Bilboko museo guztiak oso gustuko *zituela* (hark) esan zigun.
- Institutura (joan) *joateko* eta esandako guztia (egin) *egiteko* esan genion Anerri.
- Kolore ilunak gustatzen *zitzaizkiola* umerari esan ziguten.
- Berak (bai) *baietz* esan zien, berriro joango *zela*. (hura)

11 Berridatzi zehar-galdera hauek aditz laguntzailea eta menderagailua erabiliz.

- Ez daki nora joan, oso asperturik dago.
Ez daki nora joango den, oso asperturik dago.
- Badaki zenbat ekarri, ez da leloa.
Badaki zenbat ekarri behar dituen, ez da leloa.
- Ondo pentsatu dute nondik atera.
Ondo pentsatu dute nondik aterako diren.
- Ez genekien zer esan egoera hartan.
Ez genekien zer esan behar/ahal genuen egoera hartan.
- Gozokiak orain erostea erabaki dugu.
Gozokiak orain erosiko ditugula erabaki dugu.
- Ez dakite zer erosi, non, ezta noiz ere.
Ez dakite zer erosiko duten, non erosiko duten, ezta noiz erosiko duten ere.

12 Egin mendeko perpaus osagarriak honako menderatzailea edo egitura hauek erabiliz.

- -t (z)ea
Denok elkarrekin joatea erabaki dugu.
- -t (z)eko
Lehen ordurako prest egoteko esan genien.
- - (e)lakoan
Berandu helduko zirelakoan ez genuen itxaron.
- - (e)nik
Ez dut uste hain ustela izango denik.
- - (e)la
Zortzietarako hemen egongo zirela esan ziguten.
- Baietz
Baietz esan zidan, oso pozik zegoela gurekin.
- - (e)n
Zer ordutan etorriko diren galdetu diegu lehen.

13 Jarri zehar estiloan galdera honi erantzunez: «Zer esan du?»

- Ez dakit ezer horretaz.
Horretaz ezer ez dakiela (esan du).
- Erabat nekatuta etorri ginen gu handik.
Eurak handik erabat nekatuta etorri zirela (esan du)
- Ez, oso desegokia iruditu zitzaigun.
Ezetz, oso desegokia iruditu zitzaieiela (esan du)
- Bai, bihar bertan joango zarete.
Baietz, bihar bertan joango garela (esan du)
- Nondik atera dituzue betaurreko horiek?
(Ea) betaurreko horiek nondik atera ditugun (esan du).
- Hurbil zaitezte hona oraintxe bertan.
Oraintxe bertan horra hurbiltzeko (esan du).
- Auto luzeak gustatzen zitzaizkien haiei.
Haiei auto luzeak gustatzen zitzaizkiela (esan du)

14 Jarri esaldiak estilo zuzenean.

- Geroago joateko esan digu.
«Zoazte/Joan geroago»
- Diru askorik ez dela behar esan dizue.
«Aizue, diru askorik ez da behar».
- Zein etxe mota gustatzen zaidan galdetu dit.
«Zein etxe mota gustatzen zaizu?»
- Norekin joango zaren galdetu dizu amak.
«Aizu, norekin joango zara?»
- Triste bizi dela esan dit Anek.
«Triste bizi naiz»
- Arineketan joateko esan zigun.
«Etor zaitezte/zatozte arineketan».

1 Aukeratu erantzun zuzena.

- *Irakurriz/irakurtzen* asko ikasten da.
- Zer *idazten/idatziz* ari zarete hor?
- Oraintxe irakatsiko dizut *abestuz/abesten*.
- Lan *egiten/eginez* utzi ditut biak.
- Eleberri interesgarria *irakurtzen/irakurriz* ari zarete.
- Negar *egiten/eginez* utzi genituen umeak eskolan.
- Ez didazu utziko MP4-a institutura eramanez/ *eramaten*?
- Hitz *egiten/eginez* hitz *egiten* ikasten da.
- *Galdetuz/ Galdetzen* Erromara ere ailega zaitezke.
- Filmak azpituatuta ikusten/ *ikusiz* asko ikasten zuen.

2 Bete hutsuneak gerundioa zuzen erabiliz.

- Beti esaten dugu hitz (egin) *eginez* dena konpontzen dela.
- Zuek leihotik txikleak (bota) *botatzen* ari zineten une hartan.
- Amari deitu zion ordurako ez zeukala heltzerik (esan) *esanez*.
- Denak bertan (utzi) *utzirik*, joan egin ziren.
- Hori guztia (esan) *esanda* eseri egin ziren.
- (Egon) *Egonean* eman dugu goiz osoa.
- (Ibili) *Ibilian-ibilian* tontorreraino helduko zarete, lasai.
- Zer esan ez (jakin) *nekiela* nengoen.
- Horrela (izan) *izanik*, hobe dugu hurrengo batean etorri.
- Telebista (ikusi) *ikusiz* asko ikasten da.

3 Aukeratu erantzun zuzena.

- Dena ondo *egiten* ari zarete. (eginez/egiten/eginda)
- Mezu lizunak *bidaliz* ikaratzen zuen. (bidaliz/bidaltzen/bidalita)
- Botoi horiek *sakatzen* harrapatu nituen. (sakatuz/sakatzen/sakaturik)
- Leihoko kristalak *puskatuz* ziren bulegoetara. (puskatuz/puskatzen/puskatuta)
- Trikimailuak *erabiltzen* ari zara gu engainatzeko. (erabiliz/erabiltzen/erabilita)
- Lagun guztiak bertan behera *utzita* alde egin zuen. (utziz/utzen/utzita)
- *Irakurtzen* eman zuten arratsalde osoa. (irakurri/irakurtzen/irakurrita)
- Orain arte esandakoa *laburbilduz*, zera esango nuke. (laburbilduz/laburbiltzen/laburbilduta)
- Lagunak horretaz *eztabaidatzen* utzi ditut. (eztabaidatuz/eztabaidatzen/eztabaidatuta)
- Hori *ikusirik*, ez dakit zer pentsatu. (ikusiz/ikusten/ikusirik)

1 Sortu ahal duzun beste hitz «hartu» hitza abiapuntutzat harturik, elkarketa nahiz eratorpena baliatuz, eta egin esaldi bana hitzokin.

- Harreman
Elkarrekin lan egin zuten garaian harreman estua izan zuten.
- Harpidedun
Harpideduna zenez, merkeago ateratzen zitzaizkion zinemarako txartelak
- Harrera
Harrera zoragarria egin ziguten jai hartan.
- Hartune
Lurrerako hartunea beharrezkoa da arazorik ez izateko.
- Hartualdi
Hartualdi bakoitzean lau pilula hartzen omen zituen.
- Hartzailea
Eskutitzaren hartzaileari ilusio handia egingo dio jasotakoak.
- Hartzekodun
Hartzekodunak izaten dituzte horiek atzetik beti.

2 Jarri hitz hauen sinonimoak.

- Adiskidetasun *adiskidantza, adiskidego, laguntasun*
- Gorrotagarria *higuingarria, herragarria, gaitzesgarria, tirriagarria*
- Maitasun *amodio, maitazarre, askogura guraizan, maitagune, amore,...*
- Nagusitza *agintaritza, buruzagitza.*
- Elkargoa *elkartea, batza, bazkuna*

3 Egin esaldi bana ondoko esapideak erabiliz.

- Begi eman
Harrituta begi ematen zuen.
- Begitan eduki
Morroi hori begitan nuen, oso gaizki jokatu zuelako.
- Begikoa izan
Oso begikoa dut leku hori.
- Begiz jo
Aspaldian nuen nik alkandora hori begiz jota.
- Begietan eman
Horrelako kontuek niri begietan ematen didate.

4 Aukeratu erantzun zuzena.

- Nik ez dakit futbolean *jokatzen/jolasten*.
- Aspalditik/*Aspaldiko*, zenbat denbora ikusi barik!
- Zure antzinean/*aintzinean* jarriz gero, dena ikusiko dute.
- Askok handitu /*hazi* da ume adoptatuen kopurua.
- *Harrerak*/Arreta berezia egin zioten heldu zenean.
- Oso *heldua* /zaharra da duen adinerako.

5 Jarri hitz hauen antonimoak.

- Esanekotasuna *desobedientzia*
- Kutunkeria *objektibotasuna*
- Losintxa *iraina, erdeinua*
- Amultsutasuna *gogortasuna, laztasuna*
- Mirespena *gaitzespena*
- Jukutria *zintzotasuna, jatortasuna*
- Ezinikusia *maitasuna, afektua, hunkimendua*

IZENORDAINAK II**1 Bete hutsuneak izenordain zehaztugabeak erabiliz.**

- *Edonori* gerta dakiok hori, baina nori eta berari!
- Ez nion *inori* kontatu hemen gertatutakoa.
- Esan ahal didazue *zerbait* institutu horretaz?
- *Nor edo nor* joango zen jardunaldietara, ezta?
- Nintendo horrek *ezertarako* balio du?
- *Zerbaitetarako* balioko du, baina nik ez dut gustuko.
- Oso gustatzen zaio *edozein* musika mota.
- *Nor* etorri da gaur goizean zuekin autobusean?
- *Edonorentzat* ezin duzu horrelakorik erosi.
- *Ezer* esan didazue ?, ez dizuet ulertu eta.

2 Berridatzi esaldiok *elkar* izenordain elkarkaria erabiliz.

- Zuk ez zenidan ezer esan. Nik zuri ez nizun ezer esan.
Guk ez genion elkarri ezer esan.
- Zuk gu gaur ez gaituzu agurtu eta guk zuek ere ez.
Guk ez dugu gaur elkar agurtu.
- Guk hari musu bat eman genion. Berak guri ere musu bat eman zigun.
Guk elkarri musu bana eman genion.
- Zuk niretzat erosi zenituen horiek eta nik zuretzat erosi nituen.
Guk elkarrentzat erosi genituen horiek.
- Zu gurekin ibili ahal zara eta gu zurekin ibili ahal gara.
Gu elkarrekin ibili ahal gara.
- Guk zuen berri izan genuen eta zuek gurea.
Guk elkarren berri izan genuen.
- Anek dena kontatzen zidan eta nik Aneri ere dena kontatzen nion.
Guk elkarri dena kontatzen genion.
- Nik zure ondoan eseri nahi nuen eta zuk ere bai.
Guk elkarren ondoan eseri nahi genuen. Zuk eta biok elkarren...
- Nik zugar konfiantza handia dut eta zuk nigan ere bai.
Guk elkarrengan konfiantza handia dugu.
- Nik zutaz ez nuen ezer entzun eta zuk nitaz ez zenuen ezer entzun.
Guk elkarrez ez genuen ezer entzun.

3 Berridatzi esaldiak beltzez idatzitakoaren orde zizenordaina jarri.

- Barkadazue, baina **gauza bat** esango dizuet.
Barkadazue, baina zer edo zer/zerbait esango dizuet.
- **Baten batek** esango zion horri ere esan beharrekoa.
Nork edo nork/norbaitek esango zion horri ere esan...
- Mesede hori **edozein pertsonak** ez dizu egiten, ez pentsa!
Mesede hori edozeinek /edonork ez dizu...
- Ez lidake **sekula** horrelakorik esango niri.
Ez lidake inoiz horrelakorik esango niri.
- **Lekuren batekoa** izango da hori ere, ezta?
Nonbaitekoa izango da hori ere, ezta?
- **Pertsonaren batekin** eztabaidatzen badu, kaleratu egingo dugu.
Norbaitekin eztabaidatzen badu, kaleratu egingo dugu.
- **Pertsonaren batek** liburuak ahaztu ditu etxean.
Norbaitek/nork edo nork liburuak ahaztu ditu etxean.
- Aizue, **gauzaren bat** gertatzen zaizue?
Aizue, ezer/zerbait gertatzen zaizue?
- Nik hor ez dut **pertsonarik** ezagutzen.
Nik hor ez dut inor ezagutzen.

4 Idatzi zuzen esaldiak izenordain bihurkariak erabiliz.

- Ez nintzen batere ondo ikusten egoera hartan.
Ez nuen neure burua batere ondo ikusten egoera hartan.
- Beti galdetzen da zergatik ez zen joan egun hartan.
Beti galdetzen dio bere buruari zergatik ez zen joan egun hartan.
- Lurrera bota zen, ez zen jausi.
Lurrera bota zuen bere burua, ez zen jausi.
- Lanpostu horretarako eskaini zen Ander.
Lanpostu horretarako bere burua eskaini zuen Anderrek.
- Hori askotan galdetzen zara, ezta?
Hori askotan galdetzen diozu zeure buruari, ezta?
- Zurekin hitz egiten baduzu, zoratuta zaudela pentsatuko dute.
Zeure buruarekin hitz egiten baduzu, zoratuta daudela...
- Uretara botako naiz eta ea zer gertatzen den.
Uretara botako dut neure burua eta ea zer gertatzen den.

ADITZ MOTAK**5 Aukeratu forma zuzenak.**

- *Izarok/Izaro gaur goizean sukarra izan da/du.*
Izarok gaur goizean sukarra izan du.
- *Guk/Gu ez ginen inorekin joan jai horretara.*
Gu ez ginen inorekin joan jai horretara.
- *Zu/Zuk ez zara /duzu merezi horrelako traturik.*
Zuk ez duzu merezi horrelako traturik.
- *Zuek oso ondo portatu zinetenez/zenutenez, sari bat eman genizuen/ginen.*
Zuek oso ondo portatu zinetenez, sari bat eman genizuen.
- *Zuk/Zu nigana hurbildu zenuen/zinen, baina ez zintudan /nizun ikusi.*
Zu nigana hurbildu zinen, baina ez zintudan ikusi.
- *Zuek ez zenuten/zenituzten sekretuak kontatzen.*
Zuek ez zenituzten sekretuak kontatzen.
- *Ander/Anderrek ez zekien/zekizkien zertara joan behar zuen.*
Anderrek ez zekien zertara joan behar zuen.
- *Zuen umea/umeak asko hazi zen/zuen iaz.*
Zuen umea asko hazi zen iaz.
- *Gu/Guk zortzietan hasi genuen/ginen lanean atzo.*
Gu zortzietan hasi ginen lanean atzo.
- *Gure lagunek/lagunak ez zekiten/zekizkiten trikitixa jotzen.*
Gure lagunek ez zekiten trikitixa jotzen.

6 Berridatzi esaldiak aditz perifrastikoen ordeaz aditz trinkoak erabiliz.

- *Gure lagunak zazpitan kanean egoten ziren.*
Gure lagunak zazpitan kanean zeuden.
- *Marenen ikaskideek ez dute eramaten hamaiketakorik.*
Marenen ikaskideek ez daramate hamaiketakorik.
- *Zapatarik gabe ibiltzen bazara, min hartuko duzu.*
Zapatarik gabe bazabiltza, min hartuko duzu.
- *Horrek askotan ekartzen ditu horrelakoak institutura.*
Horrek orain dakartza horrelakoak institutura.
- *Zuk horiek etxean ere edukitzen dituzu.*
Zuk horiek etxean ere badauzkazu.
- *Gu kanean egoten gara berandura arte.*
Gu kanean gaude berandura arte.
- *Berandu joaten zarete antzokira zuek.*
Berandu zoazte antzokira zuek.

7 Berridatzi esaldia iraganean emanaz.

- Zuek ez zarete horretaz jabetu oso ipurtarinak zaretelako.
Zuek ez zineten horretaz jabetu oso ipurtarinak zinetelako (zaretelako).
- Gu ez gaude oso ados zuek esandakoarekin lehen.
Gu ez geunden oso ados zuek esandakoarekin.
- Etortzen diren guztietan, hanka sartzen dute.
Etortzen ziren guztietan, hanka sartzen zuten.
- Poliki dabil eta oso astiro doa.
Poliki zebilen eta oso astiro zihoan.
- Gozokiak oso gustuko dituzte.
Gozokiak oso gustuko zituzten.
- Niri ez didate utzi ezer ekartzen hamaiketakorako.
Niri ez zidaten utzi ezer ekartzen hamaiketakorako.
- Guk ez diogu esan zer ekarri behar duen meriendarako.
Guk ez genion esan zer ekarri behar zuen meriendarako.
- Hurbil zaudete eta hona bazatozte, elkarrekin egongo gara.
Hurbil zeundeten eta hona bazentozten, elkarrekin egongo ginen.
- Josu gurean egon da, baina ez du bere aurpegia gogoratzen.
Josu gurean egon zen, baina ez nuen bere aurpegia gogoratzen.
- Gu ondo gabilta zuekin gaudenean.
Gu ondo genbiltzan zuekin geundenean.

8 Sortu esaldi bina aditz hauekin, bat iragangaitza eta bestea iragankorra.

- Altxatu
Oso berandu altxatu ginen atzo bazkalondotik.
Harri-jasotzaile horrek hogeit aldiz altxatu zuen harri biribila.
- Gelditu
Zortzi aldiz gelditu da geltokian autobusa joan zaiolako.
Haiek ez zuten gaizkilea gelditu labana zeramalakoa.
- Atera
Oso berandu ateratzen ziren institututik iaz.
Hurbildu gintzaizkionean labana atera zigun.
- Mugitu
Ez zen mugitu lehen ordu erdian, zintzo-zintzo egon zen.
Belarriak oso era bitxian mugitzen zituen gure osabak.
- Erre
Gu ez gara inoiz erre San Juan sua egin dugunean.
Etxea erre zioten zorrak ordaintzen ez zituelako.
- Heldu
Heldu zirenean goizaldeko hirurak izango ziren.
Nork heldu zizun lepotik lehengo eguneko partidand?

DENBORAZKOAK**9 Berridatzi esaldiok parentesi artekoak erabiliz.**

- Ezer esan aurretik pentsatu egin beharko genuke. (orduko)
Ezer esan orduko pentsatu egin beharko genuke.
- Hanka sartzen duzuen guztietan harrapatzen zaituztet. (-etan)
Hanka sartzen duzuenetan harrapatzen zaituztet.
- Saria jasotzen ari zenean, bihotzekoak eman zion. (-ela)
Saria jasotzen ari zela, bihotzekoak eman zion.
- Berria jakin ondoren, negarrari ekin zion. (-takoan)
Berria jakindakoan, negarrari ekin zion.
- Zuon laguna aurkeztu zenidatenean erabat harrিতта geratu nintzen. (-t (z)ean)
Zuon laguna aurkeztean erabat harrিতта geratu nintzen.
- Lagunak heltzen ari zirenean zorabiatu egin nintzen. (-ela)
Lagunak heltzen ari zirela zorabiatu egin nintzen.
- Afaria zerbitzatu baino lehen muztioa edan genuen (aurretik)
Afaria zerbitzatu aurretik muztioa edan genuen.
- Ezagutu eta berehala oso ondo moldatu ziren. (bezain pronto)
Ezagutu bezain pronto oso ondo moldatu ziren.
- Hitz egiten hasi zenean ezagutu egin nuen. (-teaz batera)
Hitz egiten hasteaz batera ezagutu egin nuen.
- Bazkaltzen ari zela haginak erori zitzaizkion. (-enean)
Bazkaltzen ari zenean haginak erori zitzaizkion.

10 Esan denborazko esaldi hauek zer adierazten duten: aurrekotasuna, aldiberekotasuna, berehalakotasuna, ondokotasuna eta maiztasuna.

- | | |
|-------------------------|-------------------------|
| • joan bezain pronto | <i>aldiberekotasuna</i> |
| • barre egitean | <i>aldiberekotasuna</i> |
| • jakindakoan | <i>ondokotasuna</i> |
| • esan aurretik | <i>aurrekotasuna</i> |
| • egin eta berehala | <i>aldiberekotasuna</i> |
| • esaten duen guztietan | <i>maiztasuna</i> |
| • etorri zirenez gero | <i>ondokotasuna</i> |
| • joateaz batera | <i>aldiberekotasuna</i> |
| • gosalduek ondoren | <i>ondokotasuna</i> |
| • datozenean | <i>aldiberekotasuna</i> |
| • iritsi bezain laster | <i>aldiberekotasuna</i> |
| • joan zenetik | <i>ondokotasuna</i> |
| • - (e)n guztietan | <i>maiztasuna</i> |
| • idatzi orduko | <i>aurrekotasuna</i> |
| • ematerakoan | <i>aldiberekotasuna</i> |

1 Zuzendu oker daudenak.

- Ez genuen ezer ere esan.
Ondo
- Ez zeniguten ezer ez galdetu.
Ez zeniguten ezer galdetu.
- Inori falta zaio orririk?
Ondo
- Ez zoaz inora ez hori egin ezean.
Ez zoaz inora hori egin ezean.
- Ez omen zen inorena aurreko eguneko euritakoa.
Ondo
- Zertarako esan zenigun etortzeko? Ezertarako?
...Ezertarako ez?
- Zuek ez zenioten ezer ez kontatu amari.
Zuek ez zenioten ezer kontatu amari
- Nora zatoz, bada? Inora.
Nora zatoz, bada? Inora ez.
- Guk orain ez dugu ezer ez esan.
Guk orain ez dugu ezer esan
- Ez genuen inorentzat ere oparirik ekarri.
Ondo

2 Bete hutsuneak EZ behar denean jarriz.

- Nik ez nizun ezer ere esan horretaz.
- Gu ez ginen inora joan aurreko batean.
- Inola ere ez dizut horretarako baimenik emango.
- Norekin zoazte, bada? Inorekin ez.
- Gu ez gara inoiz Menorkan egon.
- Inori ez diozu galdetu hori?
- Ez da inorena ere.
- Norentzat ekarri dituzue horiek? Inorentzat ez.
- Hori ez omen da inorena
- Zer esan duzue? Ezer ez.

3 Aukeratu esaldi zuzena.

- Ez du inork ez ihes egin kartzela horretatik.
- *Ez du inork ihes egin kartzela horretatik.*
- *Ez duzue zuetako inork aukera joaten utzi behar.*
- Ez duzue zuetako inork ez aukera joaten utzi behar.
- *Urteotan ez dit inoiz trenak ihes egin.*
- Urteotan ez dit inoiz ez trenak ihes egin.
- *Hemen ez da inor ez heriotzatik itzurtzen.*
- Hemen ez da inor heriotzatik itzurtzen.
- *Istripu horretan ez zen inor bizirik atera.*
- Istripu horretan ez zen inor ez bizirik atera.
- *Ez zaizkio inori ur irakinetan egindako arrautzak gustatzen.*
- Ez zaizkio inori ez ur irakinetan egindako arrautzak gustatzen.

UNITATEA. LEXIKOA: HAIN TXARRA DA KOLESTEROLA**1 Sortu ahal dituzun beste hitz «jan» hitza oinarritzat harturik, elkarketa nahiz eratorpena baliatuz, eta egin esaldi bana hitzokin.**

- Jaki
Zure auzoko horrek oso jaki bereziak prestatzen ditu.
- Jantokia
Jantokiko gortinak oso koipetsu zeuden.
- Jangarria
Ez dut uste onddo horiek jangarriak direnik.
- Jakitokia
Etxeko jakitokia lataz beterik daukagu.
- Jan-urria
Jan-urria askok egiten dute uda partean.
- Jangura
Askaria eman diogu jangura izan delako.
- Jangaitza
Ekarri duzuen ogi integral hori jangaitza da.

2 Osatu atsotitz hauek zatiak lotuz eta jarri zenbaki bakoitza bere esanahiaren alboan.

- | | |
|----------------------|----------------------------|
| 1. Goseak | 3...- astean zehar etzana. |
| 2. Janak | 2...- gosea ezin ikusi. |
| 3. Janak ondo edana, | 1...- txantxarrik ez du. |
| 4. Ahoa dabilenean, | 5...- begi gehiago. |
| 5. Gose baino, | 6...- jan beharrik ez. |
| 6. Aseak | 4...- sabela poz. |

- Lehendik zerbait jan eta norbait goseak ez dagoela adierazteko:
Aseak jan beharrik ez
- Jateak aldarte ona ekarri ohi du:
Ahoa dabilenean, sabela poz.
- Zer jan baduena ez da besteen miseriaz arduratzen:
Aseak gosea ezin ikusi.
- Jan ahal duena baino gehiago nahi du:
Gose baino begi gehiago.
- Gose izatea ez da txantxetakoia:
Goseak txantxarrik ez du.
- Oturuntza on baten ostean atsedena dator:
Janak ondo edana, astean zehar etzana.

3 Jari hitz hauen sinonimoak eta antonimoak.

	Sinonimoa	Antonimoa
• Apeta	<i>gurari</i>	<i>gogogabe</i>
• Zaletasuna	<i>grina</i>	<i>aihergatasun</i>
• Pipertu	<i>erresumindu</i>	<i>poztu</i>
• Lepo egon	<i>betekada izan</i>	<i>eskasia izan</i>
• Edale	<i>zurrutari</i>	<i>abstemio</i>
• Ase	<i>nahia egin</i>	<i>gose izan</i>
• Tripakada	<i>betekada</i>	<i>gosealdia</i>

4 Aukeratu erantzun zuzena.

- Lepo *jan*/egin zuenez, azkenean tripako mina izan zuen.
- Hitza *jan*/bete ez badu ere, ez dira bere lagunak.
- Mikel *pipertu egin da*/Mikelek piper egin du, hobe da berarekin ez hitz egitea.
- Esne gainetan/*mamitan* bizi izan dira beti horiek.
- Oso mutur beltza/*zuria* zen, ez zegoen berarekin edozein jatetxetara joaterik.